

Bilboko kantaldi *antifaxista*



ehbildu



askatasun
harrea

Liburu honen bertsio digitala
eskuragarri dago hemen:
www.labur.eus/kantaldiantifaxistabilbo

ehbildu 
Bilbo

 /ehbildubilbo

 @ehbildubilbo

 @ehbildubilbo

 bilbo.ehbildu.eus

Aurkibidea

Aberriaren mugak	4	Kapitalismoak.....	15
Agure zaharra (l'estaca)	4	Lepoan hartu ta segi aurrera.....	15
Amnistiaren dema.....	5	Loretxo.....	16
Azken agurraren negarra	5	Maravillas	16
Bagare.....	6	Martxa baten lehen notak	17
Bai euskarari	6	Matalaz.....	17
Batasuna	7	Navarra tiene cadenas	18
Bella Ciao	8	Nicaragua Nicaraguita	19
El pueblo unido.....	9	Noain	19
Euskal Herrian euskaraz	10	Oi kanta berri.....	20
Gallo Rojo, Gallo Negro	10	Santa Barbara.....	20
Gora ta gora beti	11	Sarri, Sarri	21
Guretzat.....	11	Txikia.....	21
Gora Herri askeak	12	Zenbat gera	22
Irabazi dugu	12	Zutik emakumeak	22
Itziarren semea.....	13	564.....	23
Kalera kalera	14		

Aberriaren mugak

Nire aberria lurra bezain za(ha)rra da
baina ez da lurra bakarrik
haizeak bezala inguratzen nau eta
lotzen askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da
beti bera berria beti
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean
ta erretzen ere badaki.

Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizetara
zabalago egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da
hitzekoa eta hitzekoa
altzairuzko txakolin ardo zurezkoa
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da
oroimenean arindua
itsas-laminen baten herdoilezko kantu
etorkizunez fosildua.

Aberriaren mugak, euskararenak
gure baitan daude gehienak
euskara zabalduaz lau haizetara
zabalago egiten gara.

Hitzak: Joserra Garcia. Musika: Txomin Artola. Abeslaria: Urbil & Txomin

Agure zaharra (l'estaca)

Agure zahar batek zion, bere etxe aurrean,
goizean goiz, lantokira irtetzen nintzanean:
Ez al dek, gazte, ikusten, gure hesola zein dan!
Desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

Baina, guztiok batera, saiatu hura botatzera!
Usteltzen hasia dago ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan!
Ikusiko dek nola nola laister eroriko dan.

Bainan denbora badoa, nekea zaigu hasi.
Eskuak zartatu zaizkit eta indarrek utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik
Berriz arnasa hartzeko esaigun alkarrekin:

Baina, guztiok batera...

Aittona zaharra falta da bere etxe ondotik
haize txar batek hartuta eraman du hemendik.
Haur batzu ikusten ditut, eta inguraturik,
aittona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

Baina, guztiok batera...

Hitzak:
Lluís Llach

Musika:
Lluís Llach

Euskarazko moldaketa:
Xabier Lete "Txalaparta" (1976)

Amnistiaren dema

Amnistiaren alde,
zigortuen alde,
gu ere haiekin bat,
zigorpean gaude.
Ez dugu izaterik
aske haiek gabe
Haiekin askatuko
baigara gu ere.

**Amnistiaren dema
garaipen eguna
lortzen ari garena
lortuko duguna.**

Amnistiaren demak
bakea du izar
eta askatasuna
oinarrizko indar
herri dena abian
hego eta ipar
gaur borroka dugu ta
garaipena bihar.

Amnistiaren dema...

Zaudete ziur haiek
Ez dute etsiko
ez ditugu guk ere
horrela utziko.
Denak noizbait etxean
zutik eta tinko
egon ziur lortuko
dugula betiko.

Amnistiaren dema...

Hitzak: Xabier Amuriza.

Musika: Anje Duhalde

Abeslaria: Anje Duhalde

"Anje Duhalde. Zuzenean" (1993)

Azken agurraren negarra

Nora zoaz, eskual semea,
harma hori eskutan?
Harmen hartzera deitzen naute
frantsen aldera.
Harmen hartzera deitzen naute
frantsen aldera.
Eskualerritik urrunduz,
ta atzerriira joanak,
a ze negarra entzunen duzu
Eskualerrietan!
a ze negarra entzunen duzu
Eskualerrietan!

**Morts pour la patrie,
morts pour la patrie,
eskuara baizik etzakiten haiek,
morts pour la patrie.
Morts pour la patrie,
morts pour la patrie,
eskuara baizik etzakiten haiek,
morts pour la patrie.**

Gure historian zehar
zenbat malko ta ezbehar;
Landetaratu gindutenekila
dugu orai hil behar.
Landetaratu gindutenekila
dugu orai hil behar.
Bere ama agurtu du
etxolako atarian;
bere amak bisitatuko du
atzerriko hilobian.
bere amak bisitatuko du
atzerriko hilobian.

**Morts pour la patrie,
morts pour la patrie,**

...

Hitzak eta musika: Gorka Knörr.

Abeslaria: Gorka Knörr "Nik nahi dudana" (1975)



Bagare

Arabán bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
Ta Bizkaian bagara
Baita ere, Lapurdi ta Nafarran.

Guziok gara eskualdun
guziok anaiak gara
Nahiz eta hitz ezberdinez
Bat bera dugu hizkera.

Bagare, bagera
Bagire, bagara
euskara askatzeko
oraintxe dugu aukera

Arabán bagare...

Herri bat dugu
osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.

Hitzak: Bittor Kapanaga
Musika: Gontzal Mendibil
Abeslaria: Gontzal Mendibil eta Xeberri
Zaurietatik dario" (1976)

Bai euskarari

Eta bai, eta bai
Nik euskarari bai ta bai

Uso zuria, uso gorria
dantzan dabil suaren gain
uso gorria, uso xuria
herriak euskarari bai
neure kabia daukat garretan
neure umeak neure zai
nago odoletan, garretan,
txinparta gaintan
neure umeak neure zai

Uso zuria aurkitu dute
hotzak dardaraz erdi hila
uso gorria garretan dator
Euskal Herriaren bila
uso zuria lehengoa duzu
uso gorria geroa
Euskal Herritik uso bakar bat
iguzki aldera doa

Uso zuria, uso gorria
dantzan dabil suaren gain...

San Juan Loreek usaia dute
eta herriek arima
Euskal Herria euskara barik
irin gabeko ogia
Euskal Herria euskara gabe
hegalgabeko usoa
uxo gaztea aidatu hadi
eta iguzkiraino hoa

Uxo xuria, uso gorria
dantzan dabil suaren gain...

Eta bai, eta bai
Nik euskarari bai ta bai

Eta bai, eta bai
Guk euskarari beti

Hitzak: Telesforo Monzon Olaso. Musika: Herrikoa. Abeslaria: Peio eta Pantxoa "Bai euskarari" (1978)

Batasuna

Aupa gizona, jeiki mutil!
Atzar emazte ta neskati!
Borrokarako dei eginaz
irrintzi bat dabil!
Euskal Herria diagu zai,
presoak eta hilak ere bai!
Abertzale izan ezkeru gaur,
gauden denok anai!

Borrokari, luza zaidak eskua!
Hona hemen nerea zabalik!
Euskaldunon banan-banan hiltzea,
otso beltzak ez dik beste nahirik!
Euskadiren alde,
loturik bagare,
goaz borrokara!
Nagusituko baikare!
Gerokoak geroko utzi!
Gaur herriak zio:
Nahi diat bizi!

Otso beltza gauaren gauaz heldu,
artzainak zebiltzala kalakan...
Goizean goiz, odolez gorrituak,
hamaika ardi hilak belarditan...
Artzai kalakari,
atsoak iduri,
har makila eskuan
eta lotu etsaiari!
Anaien aurka ez habila!
Otso beltzarentzat atxik makila!

Agur, agur! Andere askatasuna!
Agur, agur! Biharko Euskadi!
“Iguzkitan dantzatuko gaituzu”
errana diot maiteñoari!
Besoak loturik,
ez dugu festarik,
nola dantzatuko
biok belaunikaturik?
Lehenik urratu katea,
gero libre izanen dantza egitea!

Hitzak: Telesforo Monzon Olaso. Musika: Herrikoa. Abeslaria: Peio eta Pantxoa “Bai euskarari” (1978)

Bella Ciao

Una mattina mi son' svegliato
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
Una mattina mi son' svegliato
E ho trovato l'invasor

O partigiano, portami via
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
O partigiano, portami via
Ché mi sento di morir

E se io muoio da partigiano
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
E se io muoio da partigiano
Tu mi devi seppellir

E seppellire lassù in montagna
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
E seppellire lassù in montagna
Sotto l'ombra di un bel fior

Tutte le genti che passeranno
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
Tutte le genti che passeranno
Mi diranno: Che bel fior

E quest' è il fiore del partigiano
O bella ciao, bella ciao, bella ciao, ciao, ciao
E quest'è il fiore del partigiano
Morto per la libertà

E quest'è il fiore del partigiano
Morto per la libertà

Musika: Herrikoa (1944)

El pueblo unido

El pueblo unido, jamás será vencido
El pueblo unido jamás será vencido

De pie, cantar
Que vamos a triunfar
Avanzan ya
Banderas de unidad
Y tú vendrás
Marchando junto a mí
Y así verás
Tu canto y tu bandera florecer
La luz
De un rojo amanecer
Anuncia ya
La vida que vendrá

De pie, luchar
El pueblo va a triunfar
Será mejor
La vida que vendrá
A conquistar
Nuestra felicidad
Y en un clamor
Mil voces de combate se alzarán
Dirán
Canción de libertad
Con decisión
La patria vencerá

Y ahora el pueblo
Que se alza en la lucha
Con voz de gigante
Gritando: ¡Adelante!

El pueblo unido, jamás será vencido
El pueblo unido jamás será vencido

La patria está
Forjando la unidad
De norte a sur
Se movilizará
Desde el salar
Ardiente y mineral
Al bosque austral
Unidos en la lucha y el trabajo
Irán
La patria cubrirán
Su paso ya
Anuncia el porvenir

De pie, luchar
El pueblo va a triunfar
Millones ya
Imponen la verdad
De acero son
Ardiente batallón
Sus manos van
Llevando la justicia y la razón
Mujer
Con fuego y con valor
Ya estás aquí
Junto al trabajador

Y ahora el pueblo
Que se alza en la lucha
Con voz de gigante
Gritando: ¡Adelante!

El pueblo unido, jamás será vencido
El pueblo unido jamás será vencido

Hitzak: Sergio Ortega.
Musika: Quilapayún (1973)

Euskal Herrian euskaraz

Euskal Herrian euskaraz
nahi dugu hitz eta jolas
lan eta bizi euskaraz eta
hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Zabal bideak eta aireak
gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizpait dezagun
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara
hitz egiterik ez bada
bota dezagun demokrazia
zerri askara
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Hizkuntza gabe esaidazue
nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna
irabazteko eguna
pazientzia erre aurretik
behar duguna,
ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena?

Zer Euskal Herri litzake bere
hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela
euskaldun egiten gaituena.

Hitzak: Xabier Amuriza

Musika: Natxo de Felipe

Abeslaria: Oskorri "Adio Kattalina" (1982)

Gallo Rojo, Gallo Negro

Cuando canta el gallo negro
es que ya se acaba el día.(2)
Si cantara el gallo rojo
otro gallo cantarí.(2)

**Ay, si es que yo miento,
que el cantar que yo canto
lo borre el viento.**

**Ay, qué desencanto
si me borrara el viento
lo que yo canto.**

Se encontraron en la arena
los dos gallos frente a frente.(2)
El gallo negro era grande
pero el rojo era valiente.(2)

Ay, si es que yo miento...

Se miraron cara a cara
y atacó el negro primero.(2)
El gallo rojo es valiente
pero el negro es traicionero.(2)

Ay, si es que yo miento...

Gallo negro, gallo negro,
gallo negro, te lo advierto:(2)
no se rinde un gallo rojo
más que cuando está ya muerto. (2)

Ay, si es que yo miento...

Hitzak: Chicho Sánchez Ferlosio (1964)

Gora ta gora beti

Gora ta gora beti,
bai gora Lapurdi!
Euskerak bizi gaitu
eta bizi bedi.
(berriz)

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala.
Konformatzen ez bagasa ze pekatu mortala!

Gora ta gora beti...

Gurea ez da bizi-modu normala,
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable euskaldunon jorrala.

Gora ta gora beti...

Munduan ezin bizi diteke hala,
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen olio ez da postre formala.

Gora ta gora beti...

Obrero eta nekazari leiala,
zuen ez da errenta liberala.
Diru zikinak putre motzak bezala
botatzen dizu gainera hortxe bere itzala.

Gora ta gora beti...

Jabeek dute kontzientzi zabala,
kaskatu dute gure lurren azala,
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;
burruka garbian dago. Hori da printzipala.

Gora ta gora beti...

Hitzak: Gabriel Aresti

Musika: Herrikoa

Abeslaria: Oskorri "Gabriel Arestiren oroimenez" (1976)

Guretzat

Guretzat berdin dira
astea eta jaia,
lana bihurtzen dugu
kantatzeko gaia.
Har ditzagun eskuan
giltza eta laia,
gariz eta burdinaz
lantzeko Bizkaia.

Gitarrarekin aire berri bat
daramagu kantuz egun,
abesti libre eta leiala,
prestu eta noblezadun;
haren medioa zer garen, ongi
izan gaitezen ezagun,
herri langile nekazaria
hala defendi dezagun.

Guretzat berdin dira...

Gure gogoa ez bedi arren
kantu honekin akaba,
gure ekintza izan dadila
gure hitzaren alaba.
Egun batean esan dezagun
ez "hala biz" bai "hala da",
nekea eta lana dirade
zorionaren alaba.

Guretzat berdin dira...

Bide honetan baldin bagoaz,
jakin dezagun zergatik,
zin egin behar dugu zintzoki,
bakoitzak duenagatik;
sinestedunek dudarik gabe
bere Jaungoikoagatik
eta sineste gabeek berriz
bere ohoreagatik.

Guretzat berdin dira...

Hitzak: Gabriel Aresti. Musika: Herrikoa

Abeslaria: Oskorri "Gabriel Arestiren
oroimenez" (1976)

Gora Herri askeak

Herri zatitua, herri zapaldua
askatasun irrintzi da gure kantua
bi estaturen menpe aspalditik gaude
bildu gaitezen denok herriaren alde.

Euskal Herri zatitu ta zapalduan
askatasun irrintzi gure kantua
bi estaturen menpe aspalditik gaude
bildu gaitezen denok herriaren alde.

Independentzia, askatasuna,
gora Euskal Herria gora herri askeak (x2)

Entzuten da Garazin, Iruñean, Bilbon
Kantatzen da Tuteran, Fikan ta Bermeon
Donostin ta Gasteizen, kantatu edonon
Garrasika Etxarrin eta Lixarrengon.

Independentzia, askatasuna,
gora Euskal Herria gora herri askeak
(x2)

Zarauztik Baionara, kantu alaia
Maule eta Durango, Ainhoa Araia
Atarrabia, Basauri zer nolako jaia
kateak puskatzeko orain da garaia.

Independentzia, askatasuna, gora
Euskal Herria gora herri askeak (x2)

Independència i socialisme
visca Catalunya visca la terra lliure
Independentzia, askatasuna,
gora herri askeak

Jatorrizko bertsoia: En Un Poble Oprimit. **Hitzak:** Titot I David Rosell

Euskarazko hitzak: Mikel Mundiñano, Maider Ansa, Fran Urias, Lur Larraza eta Pox. (2011)

Irabazi dugu

**Irabazi, irabazi dugu,
odolez ta malkoz
irabazi dugu.**

Irabazi, irabazi dugu,
burdinen atzetik
irabazi dugu.

Hi, Gudari, Herriko zaindari,
Gernikako sua begietan argi
hau loria, Burgosko auzia,
espatari nausitu zaio Herria.

Ekin, ez etzan lotara, bideari ekin.
Dator, odoletan dator argi-hastea
Mugarik gabeko
ludi zabal bat dugu nahi.
Armadak suntsitu, urrea bere bai,
askatasuna dugu nahi.
Euskadi berri bat dago gure zai.

Irabazi, irabazi dugu...

Bultza, bidean ez jarri, izerditan bultza,
Bultza, eskuak, odolduz bultza ta bultza.

Gure lurrazpitik hilek irabazi dute.
Txakurtegietan, oinazetan
deiadarka dabilzatenok
Aberri gazte bat sortu digute

Irabazi, irabazi dugu...

Hitzak: Telesforo Monzon Olaso

Abeslaria: Analupe Fernandez Bilbao (Lupe) (1978)

Itziarren semea

Itziarren semea: hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

- Haurra, zer egin haute holan agertzeko?
- Ama, jo egin naute mintza arazteko!
- Izenik eman al duk? Esantzak egia!
- Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!
- Jali haiz garbia!
- Bai ama, egia!
Ta amak eskaini zion klabelin gorria.

Itziarren semea: hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Zazpi gizon nituen joka inguruan
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean.
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik!
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Lagunen izenik ez baitut eman nik...
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Lau aldiz sartu naute urean burua
Zangotik euki naute zintzilikatua
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Zangotik zintzilik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Izertia ta odola burutik behera
Ezpainak urratu ta azazkalak atera
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!
Odolez beterik, ni beti ixilik!
Ta hantxen gelditu dira fitsik jakin barik!

Itziarren semea: hori duk mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila...
Harro egon litake Maji neskatila,
Espetxetik jali ta joanen zaio bila!
Maji neskatila, hori dun mutila!
Nihor salatu baino nahiago du hila!

Hitzak eta musika: Jesus Maria Markiegi

Abeslariak: Gontzal Mendibil eta Xabier Castillo Miota "Zaurietatik dario" (1976).

Kalera kalera

Altxa begiak, zabaldu orok
deiadarra lagunari
berriro izanen gaituk libre
indar emanaz iraultzari.

Kalera, kalera, borrokalari kalera,
kalera, kalera, borrokalari kalera,
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.

Zai dago ama, zai aita
zai andre ta lagunak
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.

Zai dago ama, zai aita
zai andre ta lagunak
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.

Bultza ta bultza, euskal langile,
Euskal Herri sufritua
burni kateak geldu labetan
danba danba, lurrera gartzelak.

Kalera, kalera, borrokalari kalera,
kalera, kalera, borrokalari kalera,
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera
hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.

Zai dago ama, zai aita
zai andre ta lagunak
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.

Zai dago ama, zai aita
zai andre ta lagunak
hator, hator Euskadira,
hator, hator etxera.

Hitzak: Josu Txapartegi "Txapas"
Musika: Imanol Urbietza

Kanta aberria

**Kantazak, euskalduna,
kantazak hire herria!
Kantazak, euskalduna,
hire aberria!**

Euskal mendi zelaiak bakezko jauntzitan,
etxe xuri gorriak altzotan!
Gure ikurri bandera plaza kaskoetan,
herritarrak kantuz ostatutan!
Horra aberria nola nik utzi dudan
kanpo alde joan egunetan...

Kantazak, euskalduna, ...

Nere ama maiteak nigarra gordetzen,
ttipitik bainuen kexarazten,
haren bihotz zaurtuan nik deus ez ikusten,
haurrak ez baitaki so egiten.
Amaren iduri Euskadi zaut agertzen,
bainan nik kasurik ez emaiten!

Kantazak, euskalduna, ...

Euskadi odoletan dute herrestatu,
ezpata ukalditan puskatu!
Gu Euskadiko semek, hor behar ixildu,
maitatzea omen da bekatu!
Ez, euskalduna, ez! Ez gaiten ba lotsatu!
Ulitxak lehoina aurtiko du!

Kantazak, euskalduna, ...

Hitzak: Telesforo Monzon Olaso
Abeslariak: Pantxoa eta Peio (1975)

Kapitalismoak

Kapitalismoak dakarren
katai ta zapalketa
izan dadila guretzat
indar askatzailea.

Nagusi lantokietan
baserri ta eskoletan
gure herriko nausiak
izan arte aurrera.

Aurrera langile
aurrera herri-gizona
etsaiak puskatu arte
jo dezagun aurrera.

Langile, nekazariak
euskaldun guztiak
ez dezagun gure herrian
klase diferentziak
egin dezagun biharko
Euskadi sozialista bat.

Hitzak eta musika: Jesus Maria Markiegi

Abeslariak: Gontzal Mendibil eta Xabier Castillo Miota "Zaurietatik dario" (1976).

Lepoan hartu ta segi aurrera

La-la-ra
la-la-ra la-la-la-ra
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Gazte bat lurrian aurkitu dugu
lore gorri betirik kolkua...
burdinen artetik ihesi dator
euskal gazteriaren oihua!
Mutilak, eskuak elkar gurutzatuz,
ekin ta bultza denok batera!
Bidean anaia erortzen bazaik,
lepoan hartu ta segi aurrera!

La-la-ra

Ez dugu beldurrik,
ez dugu lotsarik
nor geran,
zer geran
aitortzeko!
Ez gaituk lapurrak,
ez eta zakurrak
kataiaz loturik ibiltzeko!

Gizonak bagera,
jo (de)zagun aurrera,
gure herriaren jabe egin arte!
Askatasunaren hegala azpian
kabia egiten ohituak gare!
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu,
otsoak eskutik hartu gabe!

La-la-ra

Arrotzek ezpataz hil nahi ba naute
izituko gaituztelakoan,
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz
nere hiltzailearen aurrean!
Mutilak, ez gero nigarrak egin
erortzen banaiz
gau ilunean,
izar berri bat piztutzeroa
Euskal Herriko zeru gainean...
Euskal Herriko zeru gainean...

La-la-ra

La-la-ra la-la-la-la-ra
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Hitzak eta musika: Telesforo Monzon Olaso. Abeslaria: Pantxoa eta Peio "Peio Ospital eta Pantxoa Carrere" (1975)



Loretxoa

Mendian larrartean
aurkitzen da loretxo bat
aurrean umetxo bat
loretxoari begira

Loreak esan nahi dio
--umetxo aska nazazu,
jaio naiz libre izateko
eta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio
bizi berri bat eman,

Orduan izango bait du
indarra eta kemena
orduan emango baitu
ugari bere fruitua

Hitzak eta musika: Benito Lertxundi
Abeslaria: Benito Lertxundi "Egia" (1967) /
Exkixu "Euskal Herriak izan behar du euskalduna
eta libre!" (1996).

Maravillas

La noche los vio entrar
eran hombres sin luz
venían a todo gritar
eran la muerte azul

La escalera crujió
cuando salías tú
con tu padre a dejar
tu niña juventud

Maravillas, Maravillas
florece de Larraga
amapola del camino
te seguiré donde vayas

A Monreal, a Otsoportillo,
a Sartaguda a Santacara,
para sembrar las cunetas
de flores republicanas

Pasearemos las calles
los lavaderos y plazas
liberaremos palomas,
las de las alas rapadas

La muerte no fue capaz
de sepultar tu mañana
ni podrá pintar de olvido
la acuarela de tu alma

Maravillas, Maravillas
florece de Larraga
amapola del camino
te seguiré donde vayas.

Hitzak eta musika: Fermin Balentzia

Martxa baten lehen notak

Eguzkiak urtzen du goian
gailurretako elurra
uharka da jausten ibarrera
geldigaitza den oldarra.

Gure baitan datza eguzkia
iluna eta izotza
urratu dezakeen argia
urtuko duen bihotza

Bihotza bezain bero zabalik
besoak eta eskuak
gorririk ikus dezagun egia
argiz beterik burua

**Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
beste bat loturik deino
ez gara libre izango**

Bakoitzak urraturik berea
denon artean geurea
etengabe gabiltza zabaltzen
gizatasunari bidea

Inon ez inor menpekorikan,
nor bere buruaren jabe
herri guztiok bat eginikan
ez gabiltza gerorik gabe

**Batek gose diraueno
ez gara gu asetuko
beste bat loturik deino
ez gara libre izango**

Hitzak: J.A. Artze

Musika: Mikel Laboa

Abeslaria: Mikel Laboa "Lau-Bost" (1980).

Matalaz

Dolü gabe, dolü gabe,
hiltzen niz,
bizia Xiberuarendako
emaiten baitüt.

Agian, agian,
egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberutarrak
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko,
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko.

Agian, agian,
egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberutarrak
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko,
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko.

Hitzak: Bernard Goihenetxe "Matalaz"
(XVII. mendean)

Musika: Benito Lertxundi

Abeslaria: Benito Lertxundi
"Altabizkar-Itzaltzuko bardoari" (1981)

Navarra tiene cadenas

Navarra tiene cadenas,
Por adentro y por afuera,
las del escudo son nuestras,
las de fuera son impuestas.
Las de fuera son impuestas
las del escudo son nuestras.
Navarra tiene cadenas
por adentro y por afuera

Sancho el Fuerte, Sancho el Fuerte,
Sancho el Fuerte
si viviera uniría a los navarros
pa romper esas cadenas.
Y ahora ya no son los moros
que atacan nuestras fronteras,
ahora se llaman cristianos,
van vestidos de chisteras.

Navarra tiene cadenas,
Por adentro y por afuera,
las del escudo son nuestras,
las de fuera son impuestas.
Las de fuera son impuestas
las del escudo son nuestras.
Navarra tiene cadenas
por adentro y por afuera

En el 1512 el duque de Alba entró
con su ejército en Pamplona
partiendo Navarra en dos.
Desde entonces en Navarra
el rey de Castilla mandó.
Se rieron los monarcas,
pero navarra lloró.

Hitzak eta musika: Fermin Balentzia

Navarra tiene cadenas,
Por adentro y por afuera,
las del escudo son nuestras,
las de fuera son impuestas.
Las de fuera son impuestas
las del escudo son nuestras.
Navarra tiene cadenas
por adentro y por afuera

La historia la hace el pueblo
y la escriben contrabandistas.
Cuentan lo que les conviene
y lo adornan con mentiras.
Pero un lema nos dejaron
los infanzones de Obanos:
ser libres en patria libre
que Navarra no ha olvidado.

Navarra tiene cadenas,
Por adentro y por afuera,
las del escudo son nuestras,
las de fuera son impuestas.
Las de fuera son impuestas
las del escudo son nuestras.
Navarra tiene cadenas
por adentro y por afuera

Nicaragua Nicaragua

¡Ay, Nicaragua, Nicaragüita!
La flor más linda de mi querer
Abonada con la bendita Nicaragüita
Sangre de Diriangén

¡Ay, Nicaragua!, sos más dulcita
Que la mielita de tamagás
Pero ahora que ya sos libre, Nicaragüita
¡Yo te quiero mucho más!
Pero ahora que ya sos libre, Nicaragüita
¡Yo te quiero mucho más!

¡Ay, Nicaragua, Nicaragüita!
Recibe como prenda de amor
Este ramo de siemprevivas y jilinjoches
Que hoy florecen para vos

Cuando yo beso tu frente pura
Beso las perlas de tu sudor
Más dulcita que la frutita del tigüilote
Y el jocote tronador

¡Ay, Nicaragua, Nicaragüita!
Mi cogollito de pijibay
Mi pasión se enterró
En el surco de tu querencia
Como un granito de maíz

Es tu saliva alaste y dulcita
Como la savia del marañón
Que restaña con alegría,
todos los días
Mi rebelde corazón
Que restaña con alegría,
todos los días
Mi rebelde corazón

Hitzak: Carlos Mejía Godoy

Musika: Carlos Mejía Godoy "Son Tus Perjúmenes
Mujer - Aromas De Libertad" (1977)

Noain

Amets hura amaitzean
azken hatsa geratu zen han.
Armarri ta ezpata, irrintzi dantza,
herri baten esperantza
odol artean galduta.
Gure seme-alabek ez dezaten esan
guregatik orain
galdu dugula Noain.

Jausitako aberrian
jaiki dadin ausardia.
Amaitu da dolua, sentimendua
ez bedi izan zapaldua
altxa behar da burua.
Gure seme-alaben irribarrea
izango da mendekua.
Heldu zaigu ordua!

Ahantzuraren lurak irauli nahi eta ezin.
Arbasoen senaren lege berriz ekin.
Haiengatik, sortu edo hil.
Deika dugu geroa,
altxatu Nafarroa!
altxatu Nafarroa!

Hitzak eta musika: Rotten XIII taldea (2021)

Oi kanta berri

Oi kanta berri ixilik nago
orain duela aspaldi,
zuretzat nuen kar bero hura
suntsitu ez da dirudi.
Beste lanetan iragan ditut
hainitz egun ta gau-aldi,
bainan oraino ez dut ukatu
Euskara ez da Euskadi.

Oi kanta berri bihotzetikan
ezpainetarat jalaia,
Euskal airean bihotzen zaitut,
zu neure mezularia.
Jende artean izatu banaiz
beresle xamurgarria,
izan zaite zu ene partetik
bakezale den xoria.

Oi kanta berri izan zaite zu
anai arteko zubia
batasunetik libertatera
gidatzen duen bidea.
Kartzelan den abertzaleari
emozu doi bakargia
etsiturikan den bihotzari
esperantzaun bizia.

Oi kanta berri gure herriak
behar du bide eta zubi,
rtxetan ere baitezpadako
argiarekin, ur garbi.
Horiek denak ez dire aski
bizi badien Euskadi,
hainbat oraino beharko ditut
kanta bat eta kanta bi.

Hitzak eta musika: Mixel Labeguerie
Abeslaria: Anje Duhalde & Benito Lertxundi
"Sorminetan" (2006)

Santa Barbara

Santa Bárbara bendita,
tranlaralará, tranlará, tranlará.
Patrona de los mineros.
Mirá, mirá Maruxiña mirá,
mirá como vengo yo.
Patrona de los mineros.
Mirá, mirá Maruxiña mirá,
mirá como vengo yo.

Traigo la cabeza rota,
tranlaralará, tranlará, tranlará.
que me la ha roto un costero.
Mirá, mirá Maruxiña mirá,
mirá como vengo yo.
que me la ha roto un costero.
Mirá, mirá Maruxiña mirá,
mirá como vengo yo.

Traigo la camisa roja
tranlaralará, tranlará, tranlará.
de sangre de un compañero.
Mirá, mirá Maruxina mirá,
mirá como vengo yo.
de sangre de un compañero.
Mirá, mirá Maruxina mirá,
mirá como vengo yo.

Santa Bárbara bendita,
tranlaralará, tranlará, tranlará.
Patrona de los mineros.
Mirá, mirá Maruxina mirá,
mirá como vengo yo.
Patrona de los mineros.
Mirá, mirá Maruxina mirá,
mirá como vengo yo.

Hitzak: Geronimo Gil Baines
eta José Manuel Rodenas Valero
Musika: Herrikoa
Abeslariak: Celina y Reutilio

Sarri, Sarri

Ez dakit zer pasatzen den
azken aldi honetan
jendea hasi dela dantzatzeko sarritan
zerbait ikustekoa du
bi falta direlako
«Recuento generalean».

**Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, biba tu.**

Irratikoak han ziren
emititzen zuzenean
paella jango zutela
eta Piti eta Sarri bere muturretan
saltsan zeudela konturatu gabeak.

Sarri, Sarri, Sarri...

Zaila dugu sortzea
doinu gozoagorik
Sarri dio herriak
txanpainaz ospaturik
lruñeko entzierroa
desentzierroa hemen
zapi gorriak
zerua du estaltzen.

Ez dakit zer pasatzen den
azken aldi honetan
jendea hasi dela dantzatzeko sarritan
zerbait ikustekoa du
bi falta direlako
«Recuento generalean».

Sarri, Sarri, Sarri...

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...
kriston martxa dabil!

Hitzak: Fermin Muguruza eta Josu Landa

Musika: Frederick "Toots" Hibbertek Toots and the Maytals
bere taldearentzat moldaturiko "Chatty Chatty". (1985)

Txikia

Txikia zuen guda izena
bera gizon osoa izan arren.
Mendizabal, Sasetaren hurrena,
biak txiki, bizkor eta lerden.
Saseta hil zen gudarien aurrean,
Mendizabal hil zaigu bakarrik...
Baina biek daukate herri osoa
atzo ta gaur haien atzetik!
Euskadirentzat hil dira ta
gorputzak arantzaz beterik!

Harro hadi Kantauri itsasoa
ta heien betiko loa
betiko kantazak!
Geroari esaiok olatuetan
herri zaharrak ez direla itzaltzen!
Gure haurrek biharko ikastoletan
heien izenak abestu ditzaten,
arantzetan biak hil baitziren!
Herriarentzat biak hil baitziren!

Hitzak eta musika: Telesforo Monzon

Abeslaria: Pantxoa eta Peio
"1969-1991 bilduma" (1991)

Zenbat gera

Zenbat gera?

Lau, bat,
hiru, bost, zazpi? (bi)

Zer egin degu? Ezer ez.

Zer egiten degu? Alkar jo.

Zer egingo degu? Alkar hil?...

Zer egingo degu? Alkar hil?...

Gure asmoak, esperantzak,
herria, askatasuna,
justizia, pakea,
egia, maitasuna...
mitoak, hitz utsak?

Zenbat gera?

Lau, bat,
hiru, bost, zazpi? (bi)

Zer egin degu? Ezer ez.

Zer egiten degu? Alkar jo.

Zer egingo degu? Alkar hil?...

Zer egingo degu? Alkar hil?...

Hori ez! ... Hori ez! ...

Hori ez! ... Hori ez! ...

Hitzak: Abel Muniategi

Musika: Benito Lertxundi

Abeslaria: Benito Lertxundi

"Benito Lertxundi" (1969)

Zutik emakumeak

Zutik, emakumeak

Hautsi gure kateak

Zutik, zutik, zutik

Historia gabe, emazte

Denetan ahantziak

Mende guzietan, emazte

mundutik baztertuak

Zutik emakumeak

Hautsi gure kateak

Zutik, zutik, zutik

Apaldu eta zapalduak

Saldu ta bortxatuak

Etxe guzietan, emazte

Mundutik baztertuak

Zutik, emakumeak

Hautsi gure kateak

Zutik, zutik, zutik

Bakardadean, emazte

Elgar ezagutu gabe

Berezi gaituzte, emazte

Ahizpak izanik ere

Zutik, emakumeak

Hautsi gure kateak

Zutik, zutik, zutik

Emazteen haserre oihua

Munduan entzunen da

Indarra dugu emazte

Milaka bil gaitezen

Zutik, emakumeak

Hautsi gure kateak

Zutik, zutik, zutik

Elgar ezagutuz, emazte
Elgarri so ta mintzo
Bil gaitezen denak, emazte
Batera oldar gaiten

Zutik, emakumeak
Hautsi gure katea
Zutik, zutik, zutik

Elkarrekin emakume
Zapalketa garaitu
Egun guziz armetan gaude
Gora gure iraultza

Ez gira esklaboak
Ez dugu kadenarik
Dantza dezagun dantza

Musika: Moorsoldaten Lied. **Jatorrizko hitzak:** Mouvement de Libération des Femmes

564

Hotz amaigabe bat baino latzago
Ta urteak egun baino geiho
Bostehun eta hirurogeitalau ohe huts
Samina zabaltzen

Batzuen ustez ordaintzen
Dagokien zigorra
Maite dutenentzat berriz
Askatasun haizea

Baina hori nork ulertarazi
Etxean zai bakarrik denari
Bostehun eta hirurogeitalau taupada
Gehiago gure bihotzean.

Hitzak: Josu Zabala

Musika: Josu Zabala

Abeslariak: Hertzainak taldea "Onena" (1991)



askatasun
haiea